

IKASLEEN TXOKOA - Elizatxo ikastola



Hernani errugbi elkartea / II



Gazteak, alkohola,
drogak eta bandak / III

III / ARTIKULU SARITUA
Uxue Perez

«Txikitako
oroitzapenak»



BI IRITZI ARTIKULU / IV

-Anorexia
-Etorkinak

Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

ELIZATXO IKASTOLA

Hernani errugbi elkarte

HERNANI Rugby taldearen historia eta garaipenen berri emango dizuegu jarraian Koldo Aldunzinekin izan genuen elkarrizketari esker.

RUGBYA mundu guztian zabal dutako kirola da, baina batez ere lurralde anglosaxoietan.

William Webb Ellisek asmatu zuen, Teologia ingelesa ikasten zuen *Rugby* eskolan. Hortik datorkio izena jokoari.

Rugbya 1823an sortu zen William-ek baloia eskuaz hartu zuenean futboleari ari zela.

Kontaktuzko jokua da, non oso beharrezkoak diren trebetasuna, indar fisikoa eta taktika.

Hernani C.R.E.

Hernani C.R. Elkartearen ibilbidea 1965ean hasi zen, infantil mailako ekipo batekin. Zelaia Hernaniko futbol taldearekin konpartitzen zuten, bi entrenatzaile animosoren ardurapean.

Zaharrenek ondo gogoan dituzte oraindik Landaretokiko guardaren etxeko aldagelak, bigarren zelaia egokitzeko obrak, Urumea ibaia bideratzeko lanak eta Landareko instalazioen hobekuntzak.

Gaur egun, Foru Aldundiaren eta Hernaniko Udalaren lankidetzari esker, HCR Elkartek belar naturaleko bi zelai ditu eta zelai ondoko eraikin batean aldagelak, gimnasioa eta egoitza soziala.

Hernaniko C.R. Elkartea 1966an hasi zen parte hartzen txapelketa erregionaletan, Grupo Norte delakoan. Geroago bigarren mailako txapelketan jokatu zuen, gaur egungo Ohorezko B mailaren parekoan, eta zenbait gorabehera pasa ondoren 1977-78 denboraldian Ohorezko mailara igo zen.

1978-1987 hamarkada urrezkoa izan zen Klubaren historian. Estatu mailako goreneko mailan lau aldiz izan zen txapeldun orde; CAU Madril, Arquitectura (bi aldiz) eta UE Santboiana taldeak izan ziren irabazle.

1987an Ohorezko mailatik jaitsi egin zen taldea eta estatuko lehen mailan hartu zuen parte, grupo Norte-Levante, ezagun zaharrak zituzten eta gaur egun ere

lehiakide dituzten hainbat talderekin batera: Cornella, Montjuic, Hospitalet, Ordizia, eta abar. Lau urte horien ondoren, 1991n, zoritxarreko berregituraketa bitarteko, estatu mailako kategoria galdu egin zuen taldeak eta Euskal Ligara jaitsi behar izan zuen, Irunek irabazi baitzuen promozio partida. Azkenik, 2003-2004 denboraldian berreskuratu zuen taldeak berari zegokion maila.

Rugby eskola 1990ean sortu zen. Emaitzak lortzea baino, elkartasuna, solidaritatea eta adiskidetasuna bezalako baloreak lantzea helburu duen eskola da.

Laburbilduz esan dezakegu Hernaniko CR Elkartea, bere 41 urteko ibilbide gorabeheratsuen ondotik, Hernaniko gazteen artean errotutako taldea dela,

Hernaniko errugbi eskolak emaitzak lortzea baino, elkartasuna, solidaritatea eta adiskidetasuna bezalako baloreak lantzea du helburu.

Hernaniko herriaren babesa duena, eta Euskal Herri mailan bezala estatuan eta nazio artean ere ezagutua eta aitortua dagoen Elkartea.



Hernaniko taldea melean bultzaka.

Elkarrizketa Koldo Aldunzin:

Kaixo, zein da zure izena ?
Koldo Aldunzin.

Nongoa zara?
Donostiakoa, eta Egian bizi naiz.

Zergatik aukeratu zenuen Rugbya? Eta zergatik Hernanin?
16 urte nituela, Egian jokalaria bat ari zen, Julen Etxaidi, eta berak jokatzeko proposatu zidan Hernaniko rugby taldearekin, eta probatzea erabaki nuen.

Zein mailatan jolastu zenuen ?
Hamasei urterekin hasi nintzen jolasten eta maila nagusian jokatu izan nuen.

Noiz utzi zenion Rugbyra jokatzeari?
32 urterekin.

Zergatik hasi zinen infantilak entrenatzen ?
Rugbya utzi ondoren denbora librean nuen, eta Sergiok, kadeten entrenatzaileak, infantilak entrenatzea proposatu zidan, asko baitziren.

Beste talderen bat entrenatu al duzu ?
Ez, Hernanin hasi nintzen jokatzeko, eta Hernanin entrenatu dut.

Rugbyaz aparte beste kirolen bat praktikatzen al duzu?
Ez, futboleari hasi nintzen, baina lodiegia nintzenez, ezin nuen jokatzeko jarraitu.

Rugby profesionalen partiduak komentatzen omen dituzu, egia al da?
Bai, Egin irratian hasi nintzen, gero Euskal telebistan jarraitu nuen, eta egunkaria zegoenean abendura arte jarraitu nuen.

Nola komunikatzen zara Euskal Herrikan kanpora?
Ba, ahal dudana guztietan euskaraz, bestela frantsesez komunikatzen naiz.

Noiz suertatu zitzaizun partiduak komentatzea? Eta zergatik erabaki zenuen onartzea?
Esan dudana bezala Egin Irratian hasi nintzen, orain dela 15-16 urte. Miarritzen ez zegoenez inor kirol honetaz hitz egiteko, ni joan nintzen partiduak komentatzera. Eta onartzea erabaki nuen, jende gutxi ezagutzen zuen rugbya, eta nik rugbya zabaltzea erabaki nuen Euskal Herrian.



Jon Galdeano eta
Iñaki Berastegi
Elizatzko 4. DBH

ikasleen txokoa

Gazteak, alkohola, drogak eta bandak

DUELA urte batzuetatik hona gazteen bizimodua izugarri aldatu da. Aldaketa hori gehienbat gaueko giroan nabaritzen da. Droga eta alkohol kontsumoa geroz eta lehenago hasten da eta ugariagoa da. Etorrin asko etorri direnez gure hiri eta herrietan banda latinoak ikustea gauza normala iruditzen zaigu, baina arrisku-tsua ere bada. Gure hiri eta herrietan ikusten diren banda arruntenak Latin King-ak dira, baina Ñetak eta Skin Head-ak ere badaude.

Latin King-ak

Latin King-ak 1940. urtean hasi ziren Chicago inguruan, hispanoei laguntzeko organizazio sozial bat bezala. Hamarkada honetan organizazioa Amerikako Estatu Batuetako herrialde guztietan hasi zen zabaltzen.

Organizazioa Estatu Batu guztietatik zabaldu zen, eta 70eko hamarkadan taldeko pertsonak aktibitate ilegaletan sartzen hasi ziren, batez ere nar-kotrafikoarekin lotutakoetan.

80ko hamarkadaren erdialdean, Felix Millet eta Maximiliano Suarezek, Connecticut-eko kartzelako bi presok, "The Almighty Latin King Nation"-a sortu zuten taldeko arauak finkatuz.

Hierarkia originalean, lehenengo *primera corona* da, gero *segunda corona*, ondoren *señor de la guerra*, *consultor* eta *tesoreroak* doaz. Taldeko beste kide guztiak *soldadoak* izena dute. Taldeko sinboloari *corona* deitzen zaio. Koro hau hiru edo bost puntatakoa izan daiteke. Ofiziala bostekoa da.

Honako hau Estatu Batuetako bandarik arriskutsuenetarikoa da.

Espainiara ere iritsi dira Latin King-ak. Espainiako Latin King-ak urre eta beltz koloreekin identifikatzen dira. Hemen ere bost puntatako koroak erabiltzen dituzte ikur bezala eta ALKQN siglak ere bai.

Puertorrikoko beste banda batekin etsaituta daude, Ñetekin. Bere taldeki-de gehienak latinoak edo Puertorrikoak dira. Kataluniako organizazioak, legelari eta adituekin ordenantza bat



sortu zuten, eta *Associació Cultural de Reis i Reines Llatins de Catalunya* izena jarri diote.

Gaur egun bere kiderik garrantzitsuenak epaituak izaten ari dira.

Ñetak

Ñetak 1979an sortutako banda latinoak da. Puerto Ricoko *Oso Blanco* kartzelan presoaren eskubideen alde sortutako organizazioa zen hasieran. Esaten dutenez beste organizazio batengandik, k"G'27 delakotik, babesteko asmoarekin sortu zen.

Carlos Torres Irriartek sortu zuen. 1981eko martxoaren 30ean Irriarte hil egin zuten. Gaur egun banda hau hilketa eta bortxaketa askotaz dago akusatua. Espainian legalizatzeko bidean dago.

Bere sinboloa 4 puntetako koroa da eta beraien koloreak gorria eta beltza, eta txuria eta urdina dira.

Skin head

Skin head izenak *cabezas rapadas* esan nahi du. 60ko hamarkadako gazte mugimendu bat izendatzeko erabiltzen da izena. Skins barietate asko daude.

Beraien jatorria Londresen bizi ziren *mods* izeneko gazteengandik dator. Mods-ak klase langiletik zetozen gazteak ziren, haien helburua gauero klubetan dibertitzea zen.

Hippietatik bereizteko ilea asko moztzen zuten, baina ez zuten rapatzen.

Bere historiako punturik garrantzitsuena Jamaikako gazteekin elkartu ziren momentua da eta laster haien juergako kide bihurtu ziren.

Ezaugarri desberdinetako bat, indarkeria zen. Indarkeria hori, *hippie* eta pakistaniaren aurka erakusten zuten.

1971n Skin Head mugimendua ahultzen joan zen.

Gaur egun Skin-ek jazteko modu desberdinak dituzte, baina beraien

helburuak berdinak dira.

Skin Head taldeetako partaideak ez ziren bakarrik mutilak, neskak ere egon dira betidanik, *Skingirls* edo *Skin Head Girls* deitutakoak.

Elizatxo ikastolako inkesta

Elizatxo ikastolan lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarren mailako ikasleei inkesta bat egin zaie. Inkesta honetan zenbait galdera egin ditugu; gauez ateratzen diren ala ez, alkohola edaten duten ala ez, zertarako, zein diren diskoteka edo gazteen elkargune nagusienak, eta abar. Inkesta honen bidez lortu ditugu datu hauek.

Inkesta honen arabera, lehenengo mailako ikasle gehienak gauez ateratzen dira. Gehiengo hori gauez bakarrik festetan ateratzen da. Ateratzen direnean oso gutxi edaten dute alkohola. Bigarren mailan gauetan ateratzen dira gehienak eta gutxi edaten dute alkohola, baina lehenengo mailakoek baino gehiagok edan ohi du. Hirugarren mailan denak ateratzen dira gauez eta gehiengoak edaten du alkohola. Laugarren mailan ere, denak ateratzen dira gauez eta alkohola gehiengoak edaten du.

Ikastolako ikasle gehienek uste dute erraza dela sustantzia ilegalak eskuratzea eta gehienek ikusi dute alkoholaren eraginez gertatutako borroka berak.

Edaten dutenek esan dute ondo pasatzeko, lotsa galtzeko eta gustatzen zaielako edaten dutela.

Ikastolako gazteen artean bandarik ezagunenak Latin King, Ñetak, Skin Head, Hulingans eta Punkiak dira.

Diskotekarik edo tokirik ezagunenak Oialume, Play, Atxur, Itzela, Lur, Illunbe, Bordatxo, Bataplan, El Pinar, Pacha... dira.

Maddalen Paino, Maialen Zalakain eta Maitane Andres
Elizatxo 4. DBH

SARITUTAKO ARTIKULUA

Uxue Perez Arzak



«Txikitako oroitzapenak»

EZ ditut bi urteko gelako oroitzapen ugari, baina gogoratzen dudana lagun arteko adiskidetasuna da. Neskak aita eta amaz jolasten genuen. Bitartean, mutilak marrazten edo kamioiekin jolasten aritzen ziren.

Nesken artean, Ainhoa, Amaieur, Mireia eta ni jolasten ginen batera. Ainhoa eta Amaieur bi ama ziren niretzat. Mireia ordea ahizpa txikitat hartzen nuen.

Egunero berdin egiten genuen: eskolara iritsi, lagunekin elkartu eta aita eta amaz jolastu. Gainera, bi sehaska zeudenez, han ibiltzen ziren Ainhoa eta Amaieur, Mireia eta ni sehaskan sartu eta ateratzen. Horrela jolasten asperitzen baginen, ipuinen txokora joaten ginen. Nahiz eta ezer ere ez ulertu, han egoten ginen eserita bakoitza bere liburuarekin.

Irakasleak gailera bana ematen zigun egunero hamaiketako gisa. Zer izango ginatke irakaslerik gabe! Gainera berak aldatzen zigun pixoihala eta asperturik egonez gero, plastikozko dortoka erraldoiaren oskola alderantziz jartzen zuen, gu bertan eseritzeko eta berak ondoren bueltak emateko.

Norbaiten urtebetetzea zenean, marrazki bat egiten genion elkarri. Orain marrazki haiek ikusiko banitu, hala moduz egindako marra pare bat besterik ez nuke ikusiko. Baina ziur nago txikitako begiekin ikusiko banitu maitasunez beteriko etxeak, mendiak... topatuko nituzkeela bertan.

Orain hemen gaude 3.mailan. Mireiak beste ikastola batera joan behar izan du, noiz behinka ikusten dugun arren.. Besteok ordea, batera jarraitzen dugu. Baina, orain sehasken ordeztasunez beteriko besarkadak ditugu eta liburuak jadanik ulertzen ditugu. Hala ere, askotan garai hartako irakaslearen beharra somatzen dugu, hamaiketako ahazten dugunetan...

Uxue Perez Arzak
Elizatxo 3. DBH

26

zenbakia

ikasleen txokoa



Zoritxarrez, % 80ek egiten du hori eta arazo nahiko larria da.

Bestalde, gaur egun gizarteak eta komunikabideek ezarritako edertasun ereduetan gero eta gorputz lirainagoak azaltzen dira eta jende asko bere gorputzaren esklabu bihurtzen da. Normalean emakumezkoak politak eta oso argalak izaten dira eta gizonezkoak lirainak eta gihartsuak.

Hau dela kausa anorexiak jota dauden pertsonen artean %90 emakumeak dira; gizonezkoak, aldiz, %10 besterik ez. Komenigarria izango litzateke pertsona erreala jartzea komunikabideetan. Horrek eragin ona izango luke eta pertsona gehiago gaixotasun horretan ez sartzea lortuko genuke.

Amaitzeko, gaixotasun honen ondorio larriak aipatuko ditugu, besteak beste, ilea galtzea, larruazal lehor eta ubeldua edukitzea, mota askotako arazo hormonalak, hala nola, amenorea, ostoporosia, insomnia, hipotermia eta gehiago. Hau saihesteko, gaixoak ospitalera joan beharko luke eta bertan profesionalak zaindu.

Nire ustez, komunikabideetan, telebistan, aldizkarietan eta honelako lekuetan agertzen diren gizon-emakumeak ez dira hain argalak izan behar. Argala izateak zorientasuna emango diela pentsarazten diete pertsona batzuei; horregatik, jendeak ere itxura hori izan nahi du. Errealitatea agertu behar da, bestela gaixotasun hau are gehiago zabalduko da. Bakoitzak bere buruarekin konforme eta gustura egon behar du, gorputza liraina duela pentsatuz eta gustura sentituz.

Idoia Arregi
Elizatzko ikastola

Anorexia

AZTERTUKO dudan gaia anorexia izango da anorexia gaur egun asko hedatu delako mundu osoan, nagusiki, nerabeen artean. Gaixotasun hau larritzeko modukoa da, jende asko hil baita honen ondorioz. Hasteko saiatuko naiz gaixotasuna zertan datzan azaltzen. Anorexia ez da bakarrik gizentzeko beldurrez jateari uztea, baizik eta nori bere burua ez gustatzea. Argaltasuna, zorientasunarekin eta perfekzioarekin lotzen dute eta ondorioz, janari kantitatea murriztu egiten dute. Gaixotasuna aurrera doan neurrian, gaixoak lodi ikusten du bere burua, hala ez izan arren. Oso gutxi jaten dute eta egiten duten bakoitzean, nahita eragindakoa okadak egiten dituzte.

Beraz, anorexiaren kontra nago oso arazo larriak eduki ditzakeelako gaixoak. Hasteko, jendeak ez dio inportantzia eman behar fisikoari. Baina ez hori bakarrik, bere buruarekin konforme egon behar du pozik bizitzeko.

Anorexia hainbat kausak eragin dezake. Alde batetik, argaltzeko dietaren bat medikuaren kontrolik gabe egitearen ondorioz agertu daiteke.



Inmigrazioa

GAUR egun, egunero ikusten ditugu bai egunkari zein telebistan honako albiste hauek: "Atzo patera bat iritsi zen kanariar uharteetara" edo "Patera bat Espainiara iristen saiatzean hondortu eta inmigrante asko hil dira". Egunero agertzen direnez, gero eta garrantzi gutxiago ematen diogu honako gai honi. Horregatik Espainiako gobernua zerbaitegin beharko lukeela egoera hau aldatzeko uste dut.

Asko dira mafien eskuetan jartzen diren etorkinak. Diru kantitate handia ordaindu ondoren ehundaka pertsona pateretan Espainiarako bidean jartzen dituzte, honek dakarren arriskuan pentsatu gabe. Aurten 1.200 etorkin baino gehiago hil egin dira Kanariar uharteetara iritsi nahian. Hau ikusita, nire aburuz, gobernua bijilantzia handitu beharko luke hondoratutako barkuen kopurua murriztu ahal izateko.

Espainian bizi diren etorkin kopurua 4 milioi eta erdikoa da, hau da, biztanleriaren % 9,93a eta erdiak ez du ez etxerik ezta jatekorik ere. Hau dela eta

etorkin askok gaizki ordaindutako lanbideak hartu behar dituzte edo "top manta" edo drogak kontrolatzen dituzten mafien esku gelditzen dira zerbaitegin nahi baldin badute.

Etorkinak horrela ez bukatzeko dagoen irtenbideetako bat zera izango litzateke: inmigranteentzako zentro gehiago irekitzea, non bizitzeko tokia izango baitute. Baina honek polemika handia dakar pertsona asko direlako inmigrantei lagundu nahi ez dietenak. Beldurra dien jende asko badago: lapurretak eta etxeetan egindako asaltoak direla eta. Niri iruditzen zait pertsona gutxi batzuek egin dutenagatik ez dutela beste guztiek ordaindu behar asko baitira lana egitera bakarrik etorri diren etorkinak, baita itsasoaren beste aldean utzi duten familia mantendu behar dutenak ere. Gainera, guk beraiei laguntzen ez badiegu nork lagunduko digu guri egin nahi ez ditugun lanak betetzen?

Ondorioz, nire ustez, gobernua diru gehiago inbertitu beharko luke gure kostaldeak bijilatzen hildako gehiago ez gertatzeko eta hiri handietan etorkinentzako zentro gehiago jarri beharko liriteke hauek mafien eskuetan, drogak saltzen... buka ez dezaten eta etorkizun ona izan dezaten. ||



Elizatzoko ikasleak, gaurko ikasleen txokoaren egileak, 3. DBH eta 4. DBH mailak.